

ARABAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACION FORAL DE ALAVA

Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

Zerga Premiatasuneko Araugintza Dekretuak

3.689

ZERGA ARLOKO PREMIAZKO ARAUGINTZAKO 3/2002 DEKRETUA, ekainaren 4ko Diputatuen Kontseiluarena, zenbait hidrokaburoen txikikazko salmenten gaineko Zerga arautzen duena.

I.- Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaz onartutako Euskal Herriarentzako Autonomi Estatutuak, 41. artikuluan ezartzen duenez, Lurralde Historikoetako erakunde eskumendunek zerga araudia mantendu, finkatu eta arautu ahal izango dute haien lurraldean, Estatuko zergen egitura orokorrari, Ekonomia Itunean jasota dauden estatuarrekiko zerga koordinazio, harmonizazio eta kolaborazio arauai eta Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan helburu horietarako Eusko Biltzarrak eman dituen arauai jarraituz.

Era berean, Estatutuak jasotakoaren arabera, "zerga guztiak lurralde historiko bakoitzaren barruan ordainarazi, kudeatu, likidatu, bildu eta ikuskatuko dituzte Foru Aldundiek, salbu Aduanetako Errenten barruan sartutakoak eta egun Monopolio Fiskalen bitartez biltzen direnak, eragotzi gabe Estatuarekiko kolaborazioa eta goi mailako ikuskaritza".

II.- Zerga, administrazio eta gizarte neurriei buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legearen bitartez sortu da berriki, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Zenbait Hidrokarburoen Txikikazko Salmenten gaineko Zerga. Hori horrela, haren bilketa osasun arloko gastuak estaltzeari lotuta geratu da eta, hala dagokionean, ingurumen arloko ekimenei lotuta.

Hidrokarburoen kontsumoa zergapetzen duen zeharkako zerga gisa eratu da zerga berria, eta fase bakarrean zergapetuko ditu bere esparru objektiboaren barruan sartutako produktuen txikikazko salmentak. Lurralde espainiar osoan exijituko da zerga, salbu Kanarietan, Ceutan eta Melillan, nazioarteko hitzarmen edo itunak eta lurraldeagatik hitzartutako zerga araudi bereziak eragotzi gabe.

III.- Ildo horretatik beretik, Ekonomia Itunak ezartzen du Lurralde Historikoetako Erakunde eskudunek zerga erregimena mantendu, ezarri eta arautu ahal izango dutela beren lurraldearen barruan, salbuespen jakin batzuekin, eta Foru Aldundiei dagokiela Lurralde Historikoetako zerga sistema osatzen duten zergak ordainarazi, kudeatu, likidatu, ikuskatu, berrikusi eta biltzea.

Era berean, Lurralde Historikoek ezartzen duten zerga sistema Estatuko zerga egitura orokorraren arabera izango dela adierazten du Ekonomia Itunak.

Ildo horretatik, Kupoaren Batzorde Mistoak 2002ko martxoaren 6an hartutako Akordioan Zenbait Hidrokarburoen Txikikazko Salmenten gaineko Zerga hitzartzen da, zeinaren helburua oso-osoan foru eskumeneoak bakarrik diren osasun alorreko edo ingurumeneko jardueren gastuak finantzatzea izango den.

IV.- Arabako Lurralde Historikoko zerga sisteman zerga hau ezartzea komeni dela kontuan hartuz, zerga hori araupetzeari ekiten zaio arau orokor honen bitartez.

Zerga-Araudiaren Zerbitzuak honen gainean eman duen Txostena ikusirik,

Horren ondorioz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak hala proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaurko egunean egin duen bileran gaia aztertu ondoren, 1981eko maiatzaren 31ko Foru Arauak, Arabako Zergei buruzkoak, 13. artikuluan, eta abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Jaurbideari buruzkoak, Foru Aldundiari ematen dizkion ahalmenez baliatuz, presako arrazoiak direla eta, hau

Disposiciones y Resoluciones Administrativas

Decretos Normativos de Urgencia Fiscal

3.689

DECRETO NORMATIVO DE URGENCIA FISCAL 3/2002, del Consejo de Diputados de 4 de junio, regulador del Impuesto sobre las ventas minoristas de determinados hidrocarburos.

I.- El Estatuto de Autonomía para el País Vasco aprobado por la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, establece en su artículo 41 que las Instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán mantener, establecer y regular, dentro de su Territorio, el régimen tributario, atendiendo a la estructura general impositiva del Estado, a las normas que para la coordinación, armonización fiscal y colaboración con el Estado se contengan en el propio Concerto, y a las que dicte el Parlamento Vasco para idénticas finalidades dentro de la Comunidad Autónoma.

Igualmente establece que "la exacción, gestión, liquidación, recaudación e inspección de todos los impuestos, salvo los que se integran en la Renta de Aduanas y los que actualmente se recaudan a través de Monopolios Fiscales, se efectuará, dentro de cada Territorio Histórico, por las respectivas Diputaciones Forales, sin perjuicio de la colaboración con el Estado y su alta inspección".

II.- La Ley 24/2001, de 27 de diciembre, de Medidas Fiscales, Administrativas y del Orden Social, crea, con efectos a partir del 1 de enero de 2002, un nuevo Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos, quedando afectada su recaudación a la cobertura de gastos en materia de sanidad y, en su caso, de los de actuaciones medioambientales.

Dicho Impuesto se configura como un tributo de naturaleza indirecta que recae sobre el consumo de Hidrocarburos, gravando, en fase única, las ventas minoristas de los productos comprendidos en su ámbito objetivo, siendo exigible en todo el territorio español, con excepción de Canarias, Ceuta y Melilla, sin perjuicio de lo establecido en Convenios y Tratados Internacionales y de los regímenes tributarios especiales por razón del territorio.

III.- En este mismo sentido, el Concerto Económico establece que las Instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán mantener, establecer y regular, dentro de su territorio, el régimen tributario, con determinadas excepciones correspondiendo a las Diputaciones Forales la exacción, gestión, liquidación, inspección, revisión y recaudación de los tributos que integran el sistema tributario de los Territorios Históricos.

Igualmente, el Concerto Económico señala que el sistema tributario que establezcan los Territorios Históricos atenderá a la estructura general impositiva del Estado.

En este sentido, en el Acuerdo de la Comisión Mixta del Cupo de fecha 6 de marzo de 2002, se concierta el Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos, cuya finalidad en su totalidad será la financiación de gastos de naturaleza sanitaria o de actuaciones medioambientales de competencia exclusiva foral.

IV.- Considerando conveniente el establecimiento de esta nueva figura impositiva dentro del sistema tributario del Territorio Histórico de Álava, mediante la presente norma general se procede a su regulación.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy, en uso de las atribuciones que concede a la Diputación Foral el artículo 13 de la Norma Foral General Tributaria de Álava, de 31 de mayo de 1981, y la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, -de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava-, por razones de urgencia,

XEDATU DUT:

1. artikulua - Izaera

Bat. Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zerga zeharkako zerga da eta produktu haien kontsumoa zergapetzen du. Fase bakarrean zergapetzen ditu bere esparru objektiboaren barruan sartutako produktuen txikizkako salmentak, foru arau honen xedapenetan jasotakoaren arabera.

Bi. Zerga honetatik datozen irabazi guztiak foru eskumenekoak bakarrik diren osasun alorreko edo ingurumeneko jardueren gastuen finantzaketari lotuta geratuko dira osorik.

2. artikulua - Aplikazio eremua

Bat. Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zerga Arabako Lurralde Historikoan exijituko da, foru arau honetan xedatutakoaren arabera, Nazioarteko Hitzarmen eta Itunetan jasotako eragotzi gabe.

Bi. Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salementen gaineko Zergaren ordainarazpena Arabako Foru Aldundiari egokituko zaio honako kasu hauetan:

a) Zerga honen esparru objektiboaren barruan sartutako produktuak Araban dauden txikizkako salmentarako establezimenduetan saltzea edo entregatzea, lurralde honetatik kanpo jaso eta kontsumitzeko moduko instalazioak dituzten amaierako kontsumitzaileei egiten zaizkien horniketak izan ezik. Hurrenez hurren, Arabako Foru Aldundiari egokituko zaio Zergaren ordainarazpena, Autonomi Erkidegoko Lurraldetik edo foru lurraldetik Araban jaso eta kontsumitzeko moduko instalazioak dituzten amaierako kontsumitzaileei egiten zaizkien horniketengatik.

b) Esparru objektiboan sartutako inportazioak eta batasun barruko erosketak, inportatzaile edo erosleak Araban kokaturiko norbere kontsumorako establezimendu batean zuzenean kontsumitzeko erabiltzen direnean.

3. artikulua - Esparru objektiboa.

Bat. Zerga honen esparru objektiboaren barruan sartutako hidrokarburoak gasolinak, gasolioa, fuelolioa eta kerosenoa dira, abenduaren Zerga arloko Premiazko Araugintzako 16ko 1/1999 Dekretuak, Zerga Bereziei buruzkoak, 49. artikuluan jasotakoari jarraituaz.

Bi. Beste hauek ere sartuta daude esparru objektiboan:

a) Aurreko Bat atalean aipatutakoez bestelako hidrokarburo likidoak, baldin eta berogailuen erregai gisa erabiltzen badira.

b) Aurreko Bat atalean aipatutakoez bestelako produktuak, baldin eta karburante gisa, karburantearen gehigarri gisa edo karburante baten amaierako bolumenaren handigarri gisa erabiltzen badira, salbu gas naturala, metanoa, petrolioaren gas likidotua eta gai-nerako produktu gaseoso baliokideak.

Hiru. Aurreko Bi atalean jasotakoaren arabera esparru objektiboan sartutako produktuak Bat atalean aipatutakoen artean erantsi zaizkion produktuari edo haiek ordezkatzat hartzen den produktuari aplikatu ahal zaion zerga tasan zergapetuko dira, Hidrokarburoen gaineko Zergari dagokionez jarritako irizpideei jarraituaz, abenduaren Zerga arloko Premiazko Araugintzako 16ko 1/1999 Dekretuak, Zerga Bereziei buruzkoak, 46. artikulua 2 eta 3 atalak eta 50.1 artikulua bigarren tarifa aplikatzeko.

4. artikulua - Zergaren ondorioetarako finkatutako kontzeptua eta definizioak.

Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zergaren ondorioetarako honako kontzeptu eta definizio hauek erabiliko dira:

Bat. - "Txikizkako salmentak".

Honako hauek hartu dira txikizkako salmentatzat:

a) Esparru objektiboaren barruan sartutako produktuen salmentak edo emateak, erosleen zuzeneko kontsumorako erabiltzen direnean. Nolanahi ere, "txikizkako salmentatzat" hartuko dira jendearentzako saltokiei ondorengo Bi ataleko a) letran aipatutakoaren arabera egiten diren txikizkako salmentak, kontuan hartu gabe produktu horiei zertan erabiltzen duten.

b) Esparru objektiboan sartutako inportazioak eta batasun barruko erosketak, inportatzaile edo erosleak bere kontsumo establezimendu batean zuzenean kontsumitzeko erabiltzen direnean.

DISPONGO:

Artículo 1.- Naturaleza

Uno. El Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos es un tributo de naturaleza indirecta que recae sobre el consumo de aquéllos, gravando en fase única, las ventas minoristas de los productos comprendidos en su ámbito objetivo, con arreglo a las disposiciones de la presente norma general.

Dos. Los rendimientos que se deriven del presente Impuesto quedarán afectados en su totalidad a la financiación de gastos de naturaleza sanitaria o de actuaciones medioambientales de competencia exclusiva foral.

Artículo 2.- Ámbito de aplicación

Uno. El Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos se exigirá en el Territorio Histórico de Álava, de acuerdo con lo dispuesto en la presente disposición general, sin perjuicio de lo establecido en Convenios y Tratados Internacionales.

Dos. Corresponderá a la Diputación Foral de Álava la exacción del Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos en los siguientes casos:

a) Ventas o entregas de los productos comprendidos en el ámbito objetivo del Impuesto efectuadas en los establecimientos de venta al público al por menor situados en Álava, con excepción de los suministros que se efectúen a consumidores finales que dispongan de las instalaciones necesarias para recibirlos y consumirlos fuera de dicho territorio. Correlativamente, corresponderá a la Diputación Foral de Álava la exacción del Impuesto por los suministros que se efectúen desde territorio común o foral a consumidores finales que dispongan de las instalaciones necesarias para recibirlos y consumirlos en Álava.

b) Importaciones y adquisiciones intracomunitarias de los productos comprendidos en el ámbito objetivo del Impuesto, cuando se destinen directamente al consumo del importador o del adquirente en un establecimiento de consumo propio situado en Álava.

Artículo 3.- Ámbito objetivo

Uno. Los hidrocarburos que se incluyen en el ámbito objetivo de este Impuesto son las gasolinas, el gasóleo, el fuelóleo y el que-roseno, tal como se definen en el artículo 49 del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, de 16 de diciembre, de los Impuestos Especiales.

Dos. También se incluyen en el ámbito objetivo:

a) Los hidrocarburos líquidos distintos de los citados en el apartado Uno anterior que se utilicen como combustible de calefacción.

b) Los productos distintos de los citados en el apartado Uno anterior que, con excepción del gas natural, el metano, el gas licuado del petróleo y demás productos gaseosos equivalentes, se destinen a ser utilizados como carburante, como aditivos para carburante o para aumentar el volumen final de un carburante.

Tres. Los productos incluidos en el ámbito objetivo conforme a lo dispuesto en el apartado Dos anterior tributarán al tipo impositivo aplicable al producto de los citados en el apartado Uno al que se añadan o al que se considere que sustituyen, conforme a los criterios establecidos en relación con el Impuesto sobre Hidrocarburos para la aplicación de los apartados 2 y 3 del artículo 46 y de la tarifa segunda del apartado 1 del artículo 50 del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, de 16 de diciembre, de los Impuestos Especiales.

Artículo 4.- Concepto y definiciones a efectos del Impuesto

A efectos del Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos serán de aplicación los siguientes conceptos y definiciones:

Uno. "Ventas minoristas":

Se consideran ventas minoristas las siguientes operaciones:

a) Las ventas o entregas de los productos comprendidos en el ámbito objetivo destinados al consumo directo de los adquirentes. En todo caso se consideran "ventas minoristas" las efectuadas en los establecimientos de venta al público al por menor a que se refiere la letra a) del apartado Dos siguiente, con independencia del destino que den los adquirentes a los productos adquiridos.

b) Las importaciones y las adquisiciones intracomunitarias de los productos comprendidos en el ámbito objetivo cuando se destinen directamente al consumo del importador o del adquirente en un establecimiento de consumo propio.

Bi. "Jendearentzako txikizkako saltokiak".

a) Esparru objektiboko produktuen zuzeneko kontsumorako jendeari saltzeko instalazio finkoak dituzten establezimenduak, baldin eta, hala dagokionean, behar bezala baimenduta badaude petrolio gaien banaketa arloan indarrean dagoen araudiari jarraituaz.

b) Esparru objektiboko produktuak jaso eta kontsumitzeko behar diren instalazioak dauzkaten amaierako kontsumitzaileei hornitzen dizkieten establezimenduak.

Hiru. "Norbere kontsumorako establezimenduak".

Esparru objektiboko produktuak jaso eta amaierako kontsumoa egiteko tokiak edo establezimenduak, baldin eta titularrek aurreko Bat ataleko b) letran aipatutako kasuetan jasotzen badituzte.

Lau. "Txikizkako saltokia."

Jendearentzako txikizkako saltokietan egintzat hartuko dira txikizkako salmentak. Dena den, salbuespenez, aurreko Bat ataleko b) letran aipatutako kasuetan norbere kontsumorako establezimenduan egintzat hartuko dira salmentak, eta aurreko Bi ataleko b) letran aipatutako kasuetan, aldiz, zergapeko produktuak jaso eta kontsumitzeko instalazioetan.

Bost. "Erabilpen bereziko eta berogailuko gasolioa."

Zergei eta sektore-antolaketari buruzko xedapenetan finkatutako beharkizun eta baldintzak betez berogailuko erregai gisa edo abenduaren 16ko Zerga arloko Premiazko Araugintzako 1/1999 Dekretuak, Zerga Bereziei buruzkoak, 54. artikulua 2. atalean aurrekusten diren erabilpenetan karburante moduan erabiltzen den gasolioa.

Sei. "Erabilpen orokorreko gasolioa".

"Aurreko atalean jaso gabeko gasolioa".

Zazpi. "Berogailuko kerosenoa".

Zergei eta sektore-antolaketari buruzko xedapenetan finkatutako beharkizun eta baldintzak betez berogailuko erregai gisa erabiltzen den kerosenoa.

Zortzi. "Erabilpen orokorreko kerosenoa."

"Aurreko atalean jasota ez dagoen kerosenoa".

5. artikulua.- Zerga gaia

Bat. Esparru objektiboan sartutako txikizkako salmentak zergari lotuta daude. Zergaren subjektu pasiboek zergapeko produktuak autokontsumitzea dakarten eragiketarako ere zergari lotuta daude.

Bi. Ez daude zergari lotuta esparru objektiboan sartuta dauden produktuen emateak, baldin eta erosleari lehengoratzeari edo beste berdin batzuek ordezkatzea badakarte, aurretik erosleak saltzaileari itzuli dizkionean behin zergari lotuta egon den salmenta edo emate baten ondorioz jaso eta gero.

Hiru. Esparru objektiboan sartutako produktuak saldu direla eta erosleen eskura jarri direla ulertuko da, baldin eta zergaren kuotak ordaindu direnik frogatzen ez duten subjektu pasiboek haien erabilpena edo helburua zurriz ez badute.

6. artikulua.- Salbuespenak.

Bat. Txikizkako salmentak kasu hauetan salbuetsita egongo dira zergatik:

a) Salmentak diplomazia edo kontsularen harremanen esparruan egiten direnean.

b) Salmentetan erosleak Espainian halakotzat hartutako nazioarteko organizazioak edo organizazio horietako kideak direnean, edo Espainiak sinatutako hitzarmen batean zehaztutako pertsonak direnean, organizazio horien nazioarteko hitzarmenetan, egoitza-akordioetan edo nazioarteko hitzarmenean jasotako mugapean eta baldintzetan.

c) Salmentetan erosleak Espainia ez den beste edozein estatutako indar armatuak direnean, baldin eta Ipar Atlantikoko Ituneko kideak badira edo indar horiek edo horien zerbitzupeko langile zibilek erabili edo haien jantokiak edo tabernak hornitzeko 90/6407/EEE Erabakiak 1. artikuluan aipatutako indar armatuak badira.

Dos. "Establecimientos de venta al público al por menor":

a) Los establecimientos que cuenten con instalaciones fijas para la venta al público para consumo directo de los productos comprendidos en el ámbito objetivo y que, en su caso, están debidamente autorizados conforme a la normativa vigente en materia de distribución de productos petrolíferos.

b) Los establecimientos desde los que se efectúen suministros de los productos comprendidos en el ámbito objetivo a consumidores finales que disponen de las instalaciones necesarias para recibirlos y consumirlos.

Tres. "Establecimientos de consumo propio":

Los lugares o instalaciones de recepción y consumo final de los productos comprendidos en el ámbito objetivo en los que sus titulares los reciban en los supuestos previstos en la letra b) del apartado Uno anterior.

Cuatro. "Lugar de realización de las ventas minoristas":

Las ventas minoristas se considerarán efectuadas en los establecimientos de venta al público al por menor, excepto en los supuestos previstos en la letra b) del apartado Uno anterior, en los que dichas ventas se considerarán efectuadas en el establecimiento de consumo propio, y en los previstos en la letra b) del apartado Dos anterior, en los que dichas ventas se considerarán efectuadas en las instalaciones de recepción y consumo de los productos gravados.

Cinco. "Gasóleo de usos especiales y calefacción":

El gasóleo que, con cumplimiento de los requisitos y condiciones establecidos en las disposiciones fiscales y de ordenación sectorial, se utiliza como combustible de calefacción o como carburante en los usos previstos en el apartado 2 del artículo 54 del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, de 16 de diciembre, de los Impuestos Especiales.

Seis. "Gasóleo de uso general":

El gasóleo no comprendido en el apartado anterior.

Siete. "Queroseno de calefacción":

El queroseno que, con cumplimiento de los requisitos y condiciones establecidos en las disposiciones fiscales y de ordenación sectorial, se utiliza como combustible de calefacción.

Ocho. "Queroseno de uso general":

El queroseno no comprendido en el apartado anterior.

Artículo 5.- Hecho imponible

Uno. Están sujetas al Impuesto las ventas minoristas de productos comprendidos en el ámbito objetivo. También están sujetas las operaciones que impliquen el autoconsumo de los productos gravados por los sujetos pasivos del Impuesto.

Dos. No están sujetas al Impuesto las entregas de productos comprendidos en el ámbito objetivo que supongan la restitución o la sustitución por otros iguales al adquirente, cuando previamente hubieran sido devueltos por éste al vendedor tras haberlos recibido como consecuencia de una venta o entrega que hubiera estado sujeta al Impuesto.

Tres. Se considerará que han sido vendidos y puestos a disposición de los adquirentes los productos comprendidos en el ámbito objetivo cuyo uso o destino no se justifique por los sujetos pasivos que no acrediten que las cuotas del Impuesto correspondientes han sido satisfechas.

Artículo 6.- Exenciones

Uno. Estarán exentas del Impuesto las siguientes ventas minoristas:

a) Las realizadas en el marco de las relaciones diplomáticas o consulares.

b) Aquéllas en que los adquirentes sean organizaciones internacionales reconocidas como tales en España, los miembros de dichas organizaciones o las personas determinadas en un convenio internacional suscrito por España, dentro de los límites y en las condiciones que se determinen en los convenios internacionales constitutivos de dichas organizaciones, en los acuerdos de sede o en el respectivo convenio internacional.

c) Aquéllas en que los adquirentes sean fuerzas armadas de cualquier Estado, distinto de España, que sea parte del tratado del Atlántico Norte o fuerzas armadas a que se refiere el artículo 1 de la Decisión 90/6407/CEE para uso de dichas fuerzas o del personal civil a su servicio o para el abastecimiento de sus comedores y cantinas.

d) Aisialdiko nabigazio edo abiazio pribatua egiten dutenez bes-telako itsasontzi edo aireontziei karburantea hornitzeko salmentak direnean, bai eta trenbide garraioan erabiltzeko karburante hornidura dakarten salmentak direnean ere. Aisialdiko nabigazio edo abiazio pribatuzat hartuko dira Zerga Berezien abenduaren 16ko 1/1999 Zerga arloko Premiazko Araugintzako Dekretuaren 4. artikuluan hala-kotzat hartzen direnak.

e) Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legearen aplikazio esparruan sartutako olio erabilien salmentak direnean, erregai gisa erabiltzean, baldin olio aipatu legean eta hori garatu eta gauzatzeko araudian jasotakoa betez erabiltzen bada, eta aurretik erosleari aitortu bazaio Hidrokarburoen gaineko Zergatik salbuesteko eskubidea, Zerga Berezien abenduaren 16ko 1/1999 Zerga arloko Premiazko Araugintzako 51. artikuluan 4. atalean jasotakoaren arabera.

f) Esparru objektiboan sartutako produktuen salmentak direnean, baldin eta erosleak honela erabiltzen baditu:

1. Aurretik erosleari Hidrokarburoen gaineko Zergatik salbuesteko eskubidea aitortzea dakarkion erabilpena egitea, Zerga Berezien abenduaren 16ko 1/1999 Zerga arloko Premiazko Araugintzako Dekretuaren 52. artikuluan a) letran jasotakoaren arabera.

2. Zentral elektrikoetan argindarra sortzea edo zentral konbinatueta argindar eta beroa sortzea, baldin eta eroslea instalazio horien titularra izanik aurretik Hidrokarburoen gaineko Zergatik salbuesteko eskubidea aitortu bada, Zerga Berezien abenduaren 16ko 1/1999 Zerga arloko Premiazko Araugintzako Dekretuaren 51. artikuluan 2. ataleko c) letran jasotakoaren arabera.

3. Aireontzi eta itsasontziak egitean, aldatzean, probak gauzatzean eta mantentzean erabiltzea, baldin eta aurretik erosleari Hidrokarburoen gaineko Zergatik salbuesteko eskubidea aitortu bazaio, Zerga Berezien abenduaren 16ko 1/1999 Zerga arloko Premiazko Araugintzako Dekretuaren 51. artikuluan 2. ataleko e) letran jasotakoaren arabera.

4. Ur nabigazioko bideetan eta portuetan dragatzea, baldin eta aurretik erosleari Hidrokarburoen gaineko Zergatik salbuesteko eskubidea aitortu bazaio, Zerga Berezien abenduaren 16ko 1/1999 Zerga arloko Premiazko Araugintzako Dekretuaren 51. artikuluan 2. ataleko f) letran jasotakoaren arabera.

5. Labe garaietan erreduzio kimikorako injektatzea, erregai nagusi moduan erabilitako ikatzari erantsita, baita ere bigarren momentu batean injekzio horretatik berotze helburuko konbustio bat gertatzen denean, baldin eta aurretik erosleari, instalazio horien titularra izanik, Hidrokarburoen gaineko Zergatik salbuesteko eskubidea aitortzen bazaio, Zerga Berezien abenduaren 16ko 1/1999 Zerga arloko Premiazko Araugintzako Dekretuaren 51. artikuluan 2. ataleko g) letran jasotakoaren arabera.

Bi. Aurreko atalean jasotako salbuespenak aplikatu ahal izango dira aurretik sortu eta zergapeko produktuagatik ordaindutako prezioari gehitu zaion zergaren itzulketak gisa, hala behar denean.

Hiru. Artikulu honetan jasotako salbuespena aitortu eta, hala behar denean, itzulketak gisa aplikatzean, oinarri gisa erabil ahal izango da Zerga Berezien abenduaren 16ko 1/1999 Zerga arloko Premiazko Araugintzako Dekretuan jasotako salbuespen baliokideak aitortu eta aplikatzeko indarrean dagoen prozedura, kontuan hartuz Ogasun, Finantza eta Aurrekontueko foru diputatuak finkatzen dituen egokitzapenak.

7. artikulua.- Subjektu pasiboak.

Zergapeko produktuen jabeak zergaren subjektu pasiboak izango dira, baldin eta zergapeko eragiketarak egiten badituzte. Dena den, aurreko 4. artikuluan bat ataleko b) letran jasotako kasuetan, norbere kontsumorako establezimenduen titularrak izango dira zergaren subjektu pasiboak.

8. artikulua.- Zergaren sortzapena.

Bat. Esparru objektiboan sartutako produktuak erosleen esku-rajartzerakoan edo, bestela, autokontsumitzerakoan sortzen da zerga, baldin eta Zerga Berezien abenduaren 16ko 1/1999 Zerga arloko Premiazko Araugintzako 4. artikuluan 20. atalean aipatutako erregimen etena amaituta badago.

d) Las que impliquen un avituallamiento de carburante a embarcaciones o aeronaves distintas de las que realizan navegación o aviación privada de recreo, así como las que impliquen un suministro de carburante para su utilización en el transporte por ferrocarril. Tendrán la consideración de navegación privada de recreo y de aviación privada de recreo las que se definen como tales en el artículo 4 del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, de 16 de diciembre, de los Impuestos Especiales.

e) Las de aceites usados comprendidos en el ámbito de aplicación de la Ley 10/1998, de 21 de abril, de Residuos, y destinados a ser utilizados como combustible, siempre que dicha utilización se lleve a cabo con cumplimiento de lo previsto en la referida Ley y en su normativa de desarrollo y ejecución y que el adquirente tenga previamente reconocido el derecho a la exención del Impuesto sobre Hidrocarburos que establece el apartado 4 del artículo 51 del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, de 16 de diciembre, de los Impuestos Especiales.

f) Las relativas a los productos comprendidos en el ámbito objetivo cuyo adquirente destine a alguno de los siguientes usos:

1º. A un uso por el que el adquirente tenga previamente reconocido el derecho a la devolución del Impuesto sobre Hidrocarburos que establece la letra a) del artículo 52 del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, de 16 de diciembre, de los Impuestos Especiales.

2º. A la producción de electricidad en centrales eléctricas o a la cogeneración de electricidad y calor en centrales combinadas, siempre que el adquirente, que deberá ser el titular de dichas instalaciones, tenga previamente reconocido el derecho a la exención del Impuesto sobre Hidrocarburos que establece la letra c) del apartado 2 del artículo 51 del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, de 16 de diciembre, de los Impuestos Especiales.

3º. A su utilización en la construcción, modificación, pruebas y mantenimiento de aeronaves y embarcaciones, siempre que el adquirente tenga previamente reconocido el derecho a la exención del Impuesto sobre Hidrocarburos que establece la letra e) del apartado 2 del artículo 51 del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, de 16 de diciembre, de los Impuestos Especiales.

4º. A su utilización en operaciones de dragado en vías navegables y puertos, siempre que el adquirente tenga previamente reconocido el derecho a la exención del Impuesto sobre Hidrocarburos que establece la letra f) del apartado 2 del artículo 51 del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, de 16 de diciembre, de los Impuestos Especiales.

5º. Su inyección en altos hornos con fines de reducción química, añadidos al carbón que se utilice como combustible principal, incluso si de dicha inyección se deriva, secundariamente, una combustión aprovechada con fines de calefacción, siempre que el adquirente, que deberá ser el titular de dichas instalaciones, tenga previamente reconocido el derecho a la exención del Impuesto sobre Hidrocarburos que establece la letra g) del apartado 2 del artículo 51 del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, de 16 de diciembre, de los Impuestos Especiales.

Dos. Las exenciones previstas en el apartado anterior podrán aplicarse, en su caso, como devoluciones del Impuesto previamente devengado e incorporado al precio pagado del respectivo producto gravado.

Tres. El reconocimiento de las exenciones previstas en este artículo y, en su caso, su aplicación como devoluciones, podrá basarse en el procedimiento vigente para el reconocimiento y aplicación de las exenciones equivalentes del Impuesto sobre Hidrocarburos contempladas en el Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, de 16 de diciembre, de los Impuestos Especiales, con las adaptaciones que establezca el Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos.

Artículo 7.- Sujetos pasivos

Son sujetos pasivos los propietarios de los productos gravados que realicen respecto de los mismos las operaciones sujetas al Impuesto. No obstante, en los supuestos previstos en la letra b) del apartado Uno del artículo 4 anterior, serán sujetos pasivos del Impuesto, los titulares de los establecimientos de consumo propio.

Artículo 8.- Devengo

Uno. El Impuesto se devenga en el momento de la puesta de los productos comprendidos en el ámbito objetivo a disposición de los adquirentes o, en su caso, en el de su autoconsumo y siempre que el régimen suspensivo a que se refiere el apartado 20 del artículo 4 del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, de 16 de diciembre, de los Impuestos Especiales, haya sido ultimado.

Bi. Aurreko 4. artikuluaen bat apartatuko b) letran jasotako inportazioetan, esparru objektiboan sartutako produktuak inportatzaileen eskura jartzerakoan sortuko da zerga, behin amaitu eta gero produktuen kontsumorako inportazioa eta Zerga Berezien abenduaren 16ko 1/1999 Zerga arloko Premiazko Araugintzako Dekretuaren 4. artikuluaen 20. atalean aipatutako erregimen etena.

9. artikulua.- Oinarri ezargarría.

Bat. Zergapeko produktuen bolumena izango da zergaren oinarria, mila litrotan adierazita. Dena den, salbuespen gisa, fuelolioaren kasuan zerga oinarria produktuen pisua izango da, tona metrikitan adierazita.

Bi. Oinarri ezargarría zuzeneko zenbatespen erregimenean zehaztuko da.

Hiru. Oinarri ezargarríen zeharkako zenbatespena 1981eko maiatzaren 31ko Zergen Foru Arau Orokorrek jasotako kasuetan eta moduanerabiliko da.

10. artikulua.- Zerga tasa.

Bat. Zergapeko produktu bakoitzak ondoko zerga tasa izango du:

- Gasolinak: 24 euro 1.000 litro bakoitzeko.
- Erabilpen orokorreko gasolioa: 24 euro 1.000 litro bakoitzeko.
- Erabilpen bereziko eta berogailuko gasolioa: 6 euro 1.000 litro bakoitzeko.
- Fuelolioa: euro bat tona bakoitzeko.
- Erabilpen orokorreko kerosenoa: 24 euro 1.000 litro bakoitzeko.
- Berogailuko kerosenoa: 6 euro 1.000 litro bakoitzeko.

Bi. Zerga sortzean indarrean dauden zerga tasak aplikatuko dira.

11. artikulua.- Zerga jasanaraztea.

Bat. Subjektu pasiboek sortutako kuoten zenbatekoa jasanarazi beharko diete esparru objektiboko produktuen erosleei. Erosleak kuotak jasatera behartuta egongo dira, salbu subjektu pasiboak produktuen amaierako kontsumitzaileak direnean.

Bi. Dena den, indarrean dagoen araudiari jarraituaz, zergapeko eragiketa ordainagirian edo agiri baliokidean dokumentatu behar denean, sortutako kuotak agiri horretan jasanaraziko dira bertan jasotako gainerako kontzeptuetatik bereizita. Dena den, eragindako pertsona edo sektoreek eskatuta, Zerga Administrazioak baimendu ahal izango du zerga jasanarazteko betebeharra konplitzea agiriaren barruan honako esaera sartuz: "Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zerga barne, (e)ko tasan".

12. artikulua.- Kudeaketa arauak.

Bat. Erabilpen bereziko eta berogailuko gasolioa eta berogailuko kerosenoa bakarrik hura jasotzeko baimenduta dauden pertsonen erosi ahal izango dute, Hidrokarburoen gaineko Zergaren araudian jasotakoari jarraituaz.

Bi. Subjektu pasiboak zerga aitortpenak aurkeztera behartuta daude, bai eta, hala behar denean, bidezko autolikidazioak egitera ere. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak zergaren likidazio prozedura finkatuko du, bai eta hura kontrolatzeko behar diren kudeaketa arauak ere.

13. artikulua.- Arau hausteak eta zigorrak.

Zerga honetan jarritako arau hausteak 1981eko maiatzaren 31ko Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoaren arabera kalifikatu eta zigortuko dira, eragotzi gabe Zerga Berezien abenduaren 16ko 1/1999 Zerga arloko Premiazko Araugintzako Dekretuaren 55. artikuluan jasotakoari jarraituaz jar daitezkeen zigorrak.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehena.- Indarrean jartzea.

Foru arau hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta 2002 urteko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Dos. En las importaciones previstas en la letra b) del apartado Uno del artículo 4 anterior, el Impuesto se devengará en el momento en que los productos comprendidos en el ámbito objetivo queden a disposición de los importadores, una vez que la importación a consumo de los mismos y el régimen suspensivo a que se refiere el apartado 20 del artículo 4 del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, de 16 de diciembre, de los Impuestos Especiales, hayan quedado ultimados.

Artículo 9.- Base imponible

Uno. La base imponible del Impuesto estará constituida por el volumen de los productos objeto del Impuesto, expresado en miles de litros, con excepción del fuelóleo, respecto del cual estará constituida por el peso del producto expresado en toneladas métricas.

Dos. La determinación de la base imponible se efectuará en régimen de estimación directa.

Tres. La estimación indirecta de la base imponible será aplicable a los supuestos y en la forma previstos en la Norma Foral General Tributaria de 31 de mayo de 1981.

Artículo 10.- Tipo de gravamen

Uno. El tipo de gravamen aplicable a cada producto gravado será el siguiente:

- Gasolinas: 24 euros por 1.000 litros.
- Gasóleo de uso general: 24 euros por 1.000 litros.
- Gasóleo de usos especiales y de calefacción: 6 euros por 1.000 litros.
- Fuelóleo: 1 euro por tonelada.
- Queroseno de uso general: 24 euros por 1.000 litros.
- Queroseno de calefacción: 6 euros por 1.000 litros.

Dos. Los tipos de gravamen aplicables serán los vigentes en el momento del devengo.

Artículo 11.- Repercusión del Impuesto

Uno. Los sujetos pasivos deberán repercutir el importe de las cuotas devengadas sobre los adquirentes de los productos comprendidos en el ámbito objetivo, quedando éstos obligados a sopor-tarlas, excepto en los casos en que el sujeto pasivo sea el consumidor final de aquéllos.

Dos. Cuando, con arreglo a la normativa vigente, la operación gravada deba documentarse en factura o documento equivalente, la repercusión de las cuotas devengadas se efectuará en dicho documento separadamente del resto de conceptos comprendidos en la misma. No obstante, a solicitud de las personas o sectores afectados, la Administración tributaria podrá autorizar que la obligación de repercutir se cumplimente mediante la inclusión en el documento de la expresión "Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos incluido en el precio al tipo de ...".

Artículo 12.- Normas de gestión

Uno. El gasóleo de usos especiales y calefacción y el queroseno de calefacción sólo podrán ser adquiridos por las personas autorizadas para recibirlo conforme a lo previsto en la normativa del Impuesto sobre Hidrocarburos.

Dos. Los sujetos pasivos estarán obligados a presentar las correspondientes declaraciones tributarias y, en su caso, a practicar las autoliquidaciones que procedan. El Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos establecerá el procedimiento liquidatorio del Impuesto, así como las normas de gestión precisas para el control del mismo.

Artículo 13.- Infracciones y sanciones

Las infracciones tributarias en este Impuesto se calificarán y sancionarán conforme a lo dispuesto en la Norma Foral General Tributaria de 31 de mayo de 1981, sin perjuicio de las sanciones cuya imposición pudiera proceder con arreglo a lo dispuesto en el artículo 55 del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, de 16 de diciembre, de los Impuestos Especiales.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.- Entrada en vigor

La presente disposición general entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava y surtirá efectos desde el 1 de enero del año 2002.

Bigarrena.- Gaitzea.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio foru arau hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

Hirugarrena.- Biltzar Nagusietara igortzea

Zerga Arloko Premiazko Araugintzako Dekretu hau Arabako Biltzar Nagusiei aurkeztuko zaie, baliozko edo baliogabe dezaten, indarrean den araudiari jarraikiz.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko ekainaren 4a.- Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOB A.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontuko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak

3.528

34/2002 FORU DEKRETUA, maiatzaren 28ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Diputatuen Kontseiluak maiatzaren 12an eman zuen 48/98 Foru Dekretuan ezarritako laguntza bideak epemuga jakinik gabe luzatzen dira, aldatu edo indargabetu bitartean.

Maiatzaren 12ko 48/98 Foru Dekretuaren bitartez laguntzak ezarri ziren hazitarako edo kontsumorako patataren ekoizleek, hain zuzen Arabako Patataren Kontentsaziozko Fondoa izeneko Borondatezko Gizarte Aurrikuspen Entitatean (1997an eratutakoa) sartutakoek, urtero eta 2001. urtera arte Fondo horretan egin behar duten ekarpena finantzatzeko. Aipatutako Dekretuan aurreikusten ziren laguntzak 2001. urtera arte ziren, urte hori ere barne. Horrekin batera, eskutako baldintzak betetzen zituzten ekoizle eskatzaileentzat urte bakoitzari dagokion zenbatekoak izendatu ziren

Patataren sektoreak prezioen krisialdi ziklikoen menpe jarraitzen duela kontuan hartuz, beharrezkoztat jotzen dugu laguntza horiek ez dakigu noiz arte indarrean jarraitzea, behintzat produktu honen merkatu egoera aldatu arte.

Horren ondorioz, Nekazaritza eta Ingurumen Saileko foru diputatuak hala proposatuta, Diputatuen Kontseiluak gaurko egunez egin dako bileran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATU DUT:

Lehena.- Diputatuen Kontseiluak maiatzaren 12ko eman zuen 48/98 Foru Dekretuak (1998ko maiatzaren 15eko Arabako Lurralde Historikoaren 55 zenbakiko ALDIZKARI OFIZIALA) ezarritako diru laguntzak ez dakigu noiz arte luzatzea, haiek aldatu edo indargabetu bitartean.

Halere, ezin izango da inolaz ere dirulaguntzarik eman patata ekoizteko erabilitako azalerentzat, entitate, elkarte edo eraldaketa-industrieki kontratuak sinatuta baitaude, erreferentziako prezioan edo handiagoan.

Bigarrena.- Laguntzarako eskabidea horretarako eredutzat ezarri den inprimakian egin beharko da eta eskabidearekin batera honako agiri hauek aurkeztuko dira:

A.- B.G.A.E.an lehenengo aldiz sartu diren ekoizleak

1.- Nekazaritzako Ustiategiaren Erregistroan izena emana duela dioen Txartela.

2.- Eraketa Eskritura Publikoa edo eraketako kontratu pribatua dokumentu publiko bihurtzekoa, eskatzaileak sozietate zibilak direnean eta dokumentu hori Nekazaritzako Ustiategiaren Erregistroan ez dagoenean.

3.-Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken ekitaldiko aitortpenaren kopia, bai nekazaritzako ustiategiaren titularrarena bai beste kideenak.

4.- Norbere konturako Nekazaritzako Gizarte Segurantzaren edo Nekazaritza Jarduerarako Autonomoen Erregimen Orokorren bete-beharrei dagokienez egunean dauden egiaztagiria. Eskatzailea pertsona juridikoa bada, elkarrearen kide bakoitzaren ziurtagiria eta elkarrearena berarena ere aurkeztu beharko ditu.

Laguntza nekazari elkartu gisa eskatzen bada, beste agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:

5.- Nekazaria partaide den elkarrearen emandako egiaztagiria, bertako kidea dela egiaztatzen duena.

Segunda.- Habilitación

Se autoriza a la Diputación Foral de Álava para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente disposición general.

Tercera.- Remisión a Juntas Generales

Este Decreto Normativo de Urgencia Fiscal se someterá a las Juntas Generales de Álava, para su convalidación o revocación, de conformidad con lo establecido en la normativa vigente.

Vitoria-Gasteiz, a 4 de junio de 2002.- El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOB A.- El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

Decretos Forales del Consejo de Diputados

3.528

DECRETO FORAL 34/2002, del Consejo de Diputados de 28 de mayo, que establece la prórroga indefinida, en tanto no se modifiquen o deroguen, de las líneas de ayudas establecidas por Decreto Foral del Consejo de Diputados 48/98, de 12 de mayo.

Mediante Decreto Foral número 48/98 de 12 de mayo, se establecieron las ayudas para financiar la aportación que anualmente y hasta el año 2001 debían realizar a la Entidad de Previsión Social Voluntaria, denominada Fondo de Compensación de la Patata de Álava, los productores de patata de siembra o de consumo integrados en el citado Fondo que fue creado en 1997. En el citado Decreto se preveían ayudas hasta el año 2001 inclusive, consignándose a favor de los productores solicitantes que reunieran las condiciones exigidas, las cantidades correspondientes para cada anualidad.

Considerando que el sector de la patata sigue sometido a crisis cíclicas de precios es necesario prorrogar indefinidamente la vigencia de las citadas líneas en tanto se mantenga la situación de mercado de este producto.

En su virtud, a propuesta del Diputado Foral del Departamento de Agricultura y Medio Ambiente, previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada por el mismo en el día de hoy,

DISPONGO:

Primero.- Prorrogar indefinidamente, en tanto no sean modificadas o derogadas, las líneas de ayudas establecidas en el Decreto Foral del Consejo de Diputados 48/98 de 12 de mayo (BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 55, de 15 de mayo de 1998).

No obstante, en ningún caso será subvencionable la superficie dedicada al cultivo de la patata para la que exista relación contractual con Entidades, Asociaciones o Industrias Transformadoras con precio igual o superior al que se establezca como precio de referencia.

Segundo.- La solicitud de ayuda deberá realizarse en impreso normalizado al efecto y deberá ir acompañado de la siguiente documentación:

A.- Productores que se integren por primera vez en la E.P.S.V.

1º.- Tarjeta de inscripción en el Registro de Explotaciones Agrarias.

2º.- Escritura Pública de Constitución o de elevación a documento público de contrato privado de constitución, cuando los solicitantes sean Sociedades Civiles y no exista este Documento en el Registro de Explotaciones Agrarias.

3º.- Copia de la Declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Titular y de los demás miembros que integran la explotación agraria, correspondiente al último ejercicio.

4º.- Certificado de estar al corriente de las obligaciones de la Seguridad Social Agraria por cuenta propia o del Régimen General de Autónomos para actividad Agraria. Si el solicitante es persona jurídica, deberá aportar el certificado indicado por cada uno de los socios y además el de la sociedad como tal.

En caso de que se solicite la ayuda como agricultor asociado, además deberá presentar la siguiente documentación:

5º.- Certificado de la Entidad Asociativa a la que pertenezca el agricultor, que acredite su condición de socio.